

Basilisa Loiti Elorza

*Antzuola, Gipuzkoa
(1924-2017)*

Basilisa_Loiti

Aurkibidea

Biografia

Basilisa_Loiti Kaletarra. Antzuolan bertan ibili zen eskolan 14 urtera arte.
14 urterekin umezain hasi zen etxe batean. Gerora,
Antzuolako Telleria larrugintza-lantegian egin zuen lan.

Zintak

ANT-097

- **Proiektua:** Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 43 min
- **Euskarria:** DVD
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Eskolatik Debara itsasoa ikusteko

- **Erref:** ANT-097/003
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Antzuolako eskolan ikasi zuen umetan, 14 urtera arte joan zen. Eskolatik ez zuten irteerarik egiten; behin, Debara joan ziren itsasoa eta hondartza ikus zezaten.

2. Larrua eskuz josten zuten

- **Erref:** ANT-097/009
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:10:03. **Bukatu:** 00:12:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Telleriaren tailerrean 16 urtez aritu zen lanean. Larrua josten zuten eskuz. Militarrentzako lan asko egiten zituzten: kartutxerak, polainak, gerrikoak... Bi jostorratz erabiltzen zituzten eta haria ere berezia zen.

3. Makinetan gizonezkoak baino ez

- **Erref:** ANT-097/010
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:12:43. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Larrua eskuz jotzen zuten, baina zuloak-eta makinaz egiten ziren. Makinetan gizonezkoak aritzen ziren. Jose Iñurriagarro aritzen zen makinan.

4. Lantegiko lankideak eta arduradunak

- **Erref:** ANT-097/011
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Telleria larru-lantegian gerra garaian jende asko aritu zen lanean, Basilisa gerora hasi zen. Bere garaian askoz gutxiago ziren, hiru-lau emakume eta hiru gizonezko. Arduraduna Gasteizko bat zen, Lazaro, oso gogorra zen; gerora, Antzuolan bizi zen beste gasteiztar bat izan zuten arduradun.

5. Lantegiko nagusiarekin hartu-emanik ez

- **Erref:** ANT-097/012
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:18:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Juanito Telleria zen lantegiko nagusia, Agustin Telleriaren semea eta Felix Telleriaren biloba. Langileek ez zuten nagusiarekin hartu-emanik, arduradunarekin baino ez zuen tratatzen. Kurtiderian gizonezkoek egiten zuten lan.

6. Lanean ezin zuten berbarik egin

- **Erref:** ANT-097/014
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:19:10. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Lantegiko arduradunak ez zien uzten langileei beraien artean berba egiten. Lanean ezin zuten berbarik egin, lana eta lana, besterik ez.

7. Eguneko bost pezeta, San Simon egunez 10

- **Erref:** ANT-097/018
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:26:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleriaren tailerrean lanean hasi zenean, bost pezeta kobratzen zituen eguneko. Handik gutxira 50 zentimo igo zien. Billetetan kobratzen zuen. Arduradunak, Lazarok, ematen zien dirua bere bulegoan; zapatutan kobratzen zuten. Amari entregatzen zien dirua. San Simon egunez, larrua ontzen aritzen zirenen egunean, aparteko ordainsaria izaten zuten: hamar pezeta.

8. San Simon eguneko ospakizunetan gizonak baino ez

- **Erref:** ANT-097/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

San Simon egunez arratsalde zai izaten zuten. Larrua ontzen aritzen ziren lantegiko gizonetakoek afaria izaten zuten tabernan; emakumeak ez zituzten gonbidatzen ospakizunetara.

9. Lanean baja hartzeko eskubiderik ez

- **Erref:** ANT-097/023
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:29:01. **Bukatu:** 00:29:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Telleria larrugintza-lantegian ez zuten baja hartzeko eskubiderik; gaixo egonez gero, ez zuten bakarrik kobratzen. Ama askotan izaten zuen gaixo; ondorioz, askotan hartu behar izaten zuen baimena eta soldatatik kentzen zien.

10. Arduradunarekin hartu-eman txarra

- **Erref:** ANT-097/029
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:37:24. **Bukatu:** 00:38:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Telleria larrugintza-lantegian oso gustura aritu zen, nahiz eta arduradunekin ez izan harreman ona, oso gizon zakarra zen Lazaro. Tabernan zegoen apopilo eta astelehenetik egubakoitzera (ostiral) arte egoten zen Antzuolan, bera gasteiztarra baitzen.

Loiti Elorza, Basilisa | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com